

XEDAPEN OROKORRAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA
OGASUN ETA EKONOMIA SAILA

1942

AGINDUA, 2017ko apirilaren 6koa, Ogasun eta Ekonomiako eta Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuena, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren Kontratazio Mahaia eratzen duena.

24/2016 Dekretua, azaroaren 26koa, Lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen, indarrean jarri ondoren, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailera atxikitako kontratazio-mahaia eratu beharra dago, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 8.3 artikulua bigarren lerrokadan ezarritakoa betetzeko. Horren zazpigarren xedapenak 6 hilabeteko epea ezartzen du, aipatutako dekretua indarrean jartzen denetik aurrera zenbatuta, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakundeek, baldin eta administrazio publikotzat hartzen badira, kontratazio-mahaiaren egitura dekretu honen 8. artikuluan xedatutakora egokitzeko.

Horiek horrela, eta Kontratazio Publikoko Aholku Batzordeak txostena egin ondoren, honako hau

XEDATZEN DUGU:

1. artikulua.– Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren kontratazio-organoek, publikotasuna izan behar duten esleitzeko prozedura ireki, murriztu eta negoziatuetan, kontratazio-mahai baten laguntza izango dute. Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubideari buruzko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 9. artikulua eginkizunak beteko ditu horrek, eta honako kide hauek osatuta egongo da:

a) Lehendakaria: Ekonomia- eta aurrekontu-kudeaketaren arloko arduradunak, bai eta aholkulari juridiko batek ere (Zerbitzu Zuzendaritzakoak biak); bietako edozeinek beteko ditu kontratazio-mahaiko lehendakari-eginkizunak, eta elkar ordezkatzeko dute kargua hutsik den kasuetan, dagokiona bertaratzen ez denean, gaixotasun kasuan edo beste arrazoiren bat dagoenean.

b) Kontratazio-organoak izendatutako kide bat, hari aholkularitza teknikoa emango diona.

c) Idazkari-Kide-Aholkulari Juridikoa: Zerbitzu Zuzendaritzako Kontratazioaren Arduradunak, Aholkularitza Juridikoaren eta Mahaiko Idazkariaren eginkizunak beteko dituenak, hitz egin eta bozkatzeko aukerarekin. Kargua hutsik badago, kanpoan baldin bada, gaixo badago edo beste legezko kausaren bat gertatuz gero, Zerbitzu Zuzendaritzako Kontratazio Zerbitzuko teknikariak ordezkatzeko du.

d) Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ordezkari izango den kide batek; haren titularrak izendatuko du, eta kontratazio-organoaren ekonomia-aurrekontua kontrolatzeko eginkizuna beteko du.

e) Kide batek, Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritzaren ordezkari gisa, ondasun eta zerbitzu informatiko eta telematikoei buruzko espedienteetan soilik. Haren titularrak proposatu eta kontratazio-organoak izendatuko du, Informazio- eta telekomunikazio-sistemen egitekoak

2017ko apirilaren 20a, osteguna

eta kudeaketa-modalitateen planifikazioa, eraketa eta banaketa arautzen dituen otsailaren 18ko 35/1997 Dekretuan aurreikusitako kasuetan.

f) Aukeran, eta kontratazio-organoak eskatuta, kide batek, Ondare eta Kontratazio Zuzendari-tzaren ordezkari gisa, haren titularrak proposatu eta kontratazio-organoak izendatuta.

2. artikulua.– Kontratu bakoitzaren administrazio-baldintza berezien agirietan jasoko da haren kideen osaera eta nortasuna, eta dagokion kontratazio-organoaren kontratatzaile-profilean argitaratuko da.

3.– Aurreko xedapenen arabera osatutako kontratazio-mahaiak, halaber, eskumena ere izango du esleitzeko prozeduretan esku hartzeko, baldin eta, kide anitzeko horrelako organoek esku har- tzea nahitaezkoa ez den arren, dagokion kontratazio-organoak horrela erabakitzen badu.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Egin beharreko kontratuaren ezaugarrien arabera, kontratazio-organoak kontratazio-mahaiaren laguntza jaso ahal izango du, berau agindu honen bidez modu iraunkorrean eratuta egonik edo haren kideak kontratu bakoitza esleitzeko berariaz izendatuta; azken kasu horretan, halere, kideen nortasuna kontratatzailearen profilean argitaratu beharko dute.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetu egiten da 2013ko ekainaren 25eko Agindua, Ogasun eta Finantzetako eta Ingu- rumen eta Lurralde Politikako sailburuena, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren Kontratazio Mahaia sortzen duena.

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko apirilaren 6a.

Ogasun eta Ekonomiako sailburua,
PEDRO MARÍA AZPIAZU URIARTE.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburua,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.